

"Odeiak ttu eginiño apoez, adibidez"

Bide idor infinitu honetan barrena noa; marra amaigabe batean hegaz. Bidera agertzen zaizkidan itzal bakarrak uniformatuak dira; bele beltzak, Amparanoiaeren Sidi kaouki kantuaren erritmora Essaouiratik irristatu, noizbait berarekin oporretara etorri nahi nuen Agadir ezta usaiarik ere hartu gabe luzaz pasa ta, Tan Tan herrira baino lehentxeago lehen kontrola aurrez aurre. Kala eder baten parean. Poliziek pasaportea begiratu ta jarraitzeko baimena ematen didate...uff, hasi gara.

Hurrengo gasolindegian hurrengo geldialdia. Saharan subentzionatua izaki, Aaiunera heltzeko beste gasolioz hornitu dut kangoo-a. Tan Tan, basamortuko lehen herritik pasatzera ko badaramatzat 2.500km inguru lepoan Gaztela eta Maroko artean, akaso herri ataria apaintzen duten dromedario erraldioen beste?!

Tarteka itsasoa bertan dagoela sinestezina egiten zait...hau berdina da dena! Sasitza inoiz, hareia ia beti ta landaretza pixka bat noizbait, sikjera, koadroaren markoa berdetu nahian bezala. Aurrera darrat, Tarfayara bidean lila koloreko lore ta sasi artean. Ta bigarren kontrola! Oraingoan garitara sartu naute, txabola batera, ta aurrerantzean ofitikoak egingo zaizkidan galdera berak egin: Lanbidea? Zetara zatoz? Zenbat denborarako?...Zipi serio ta Zape burlairez. Ikaslea naizela esan -duten obsesioaren jakitun, batez ere kazetaria ezetz- ta erdi-barrez utzi naute joaten, 'gure antzeko titulua daukark!' bezalako bat arabiera zatarrean esanez bezala. Ez diot beste bueltarik eman, luzea da ta bidea bestela ere.

Jarraitzen dut kotxean Mariam Hasan-en kantuen aienera, 1975.ean okupatutako lurraldera iritsi bitartean hurrengo kontrolak geldiarazten nauen arte; Tarfaya. Ifui eta Sahara legez Espainiaren menpe egon zen hiria, independentziarekin bat Marokoko erresumara batu zen arte 1957an. Hemezortzi urte beranduago hemen bildu ziren milaka marokoa, Hassan II.aren deiari jarraituz, espainiarrak egotzi eta Sahara konkistatzeko martxa berdean. Gaur leku desolatua bada, pentsa nolako izango zen duela lau urte urte pasa Espainiako protektoratu hiri burua! Orduko Cap Juby. Hezurrez seinalatutako orduko karabanen bideak ezin bestean ekartzen didate gogora Antoine De Sait-Exuperyk hemen iragan urte biak, kolonialismoaren beraren absurdoaren garaikide. Nola basamortuko gameluzain bati kontatu omen zion berak ordu gutxitan egin zezakeela hegazkinez berrogei ta hamar egunetik gorako bidaia, eta honek erantzun: 'ta zer da gainontzeko egunetan egiten duzuna?!

Bide luzeen geltoki da Tarfaya, Smara eta Tinbuktuoko karabana hornitzailer. Gaur portuko atarian soldadu bat dago, aerodromo utzian, hain zuzen ere, Sait-Exuperyn filmerako altxatutako printze txikiaren estatua bertan dagoen arren.

Asko dira hemendik kanarietara irten direnak! Eta eguneroak Ceuta ta Melilla ko hezietan geratutakoen berriak. Nire patxadatik, imaginagaitza egiten zait milaka kilometro basamortuan gordeka eta eskupeko ka dabiltzanen odisea; euliak amaraunean lez geratu ezean, bortxatuak, tirokatuak edo tiburoien kopo bukatu dutenen amets gaiztoa.

Jada buruz dakizkidan galderak erantzun eta aurrera; oraingoan printze txikiaren 'siempre se esta lejos del amor' kantuaren notapetan. Izan ere, Mooussak berak hitz egin zidan herri hontaz ere lehen aldiz. Nola Paris-Dakarra pasatzen ikusi zuen behin. Bertokoak ez badira ere, karabanak hur harrapatzen zuen nonbait eta kuriositatez gerturatu zen. Kazetari bati motxilatik liburu bat erori omen zitzaion ta Mooussak jaso ta itzuli omen zion jabeari. Honek orduan, esker ona itzuliz, berari oparitzeko dudu zipitzik ez zuen izan. Mooussak ere, erregalua bereganatzeko dudarik ez zuen egin keinu polita iduriz. Printze txikia zen liburu hori, eta berak tartean ezer ez zekielarik, kazetariarekin batera bere buruari zin egin omen zion, egunen batean irakurri egingo zuela. Izango zela hura irakurtzeko gai. Baita lortu ere, horrela lortu zuelarik Frantzia ikasteko beka. Ta horrela ezagutu ginen Montpellierren Mooussa Ag Assarid eta biok.

Bera izatez Mali iparraldeko kanpamendu nomada bateko tuarega zen, Tombuctu eta Gao bitartean. Hau da, Saharako desertuan jaiio ta bere adinik ere ez zekien paper gabea zen 'Mou'. Berak urguiluz zioen gisan 'desertuko jauntxo'. Azken finean horrela ezagutzen ziren amazigh (bereber) etniako tuareg hauek. Tuareg hitzak abandonatuak esan nahi zuela esaten zidan te eta te artean, hargatik zela horren solidarioa tiffinagh alfabetoan mintzatzen zen herri nomada hau. Dagoeneko behegantz zeterren 3 miloi ibilkarik osatzen zuten tribua, zerutiar begi horien distira penatuaz sari esaten zuen lez; 'herri batek desagertua behar du bizi izan dela jakin dezaten'. Berak jagon zuen orde. Nik oraindik orain, 'haizearen gudari' deitzen diot.

Ez dago urrun honezker Tah herririka. Espainiako Saharako muga-leku zena. Nik, oraingoan bai, indarberritzeko, 2009an Dakhlan eginiño Aminetu Haidarren aldeko jaialdiaren cd-a tope jarri autoan eta Aaiun bistan. Aaiun eta... poliziak, militarak, nazio batuetako kamioiak... herri okupatu baten hiriburu okupatua muturren pare. Kontrastea ere parekoa da, Casablancan neurrikoa; takoi luze eta arropa estuak guztiz estalitako emakumeen itzal. Kolonoen sustrai falta eta bertokoen presio soziala nahas-mahasean. Oroitzapen bat eta postal bat bata bestearen gainean!

Sumatzen dut non dauden sahararren auzoak, baina nola iritsi? Zelan bereizi nor den nor? Galdetuta bai, baina nolatan nire burua baino, bertokoena jartzen badut arriskuan?!

Mooussak esaten zidan berak ezagutzen zituela oraindik orain askatasunik ez zuten emakumezko talde batzuen hizkera. Josten zituzten oihalen bitartez elkar komunikatzen zirela oso noizean behin baino ez bazen ere. Ahal zutenetan, ahal zutenekin, ahal zutenen bitartez. Kolore alaiño oihalen erabilpenak ondo zeudela adierazten zuela, eta kontrañoak alderantziz. Baita bordatutako figurek ere. Ni berriz, europar indigena bat baino ez naiz neurean; ezer gutxi berton. Ta laguntza bakarra, neure bihotza da. auskalo zein testura ta koloreetako!

Nayem Alal isildu da kasetean eta patuak hala erabaki balu legez, Ruper hasi da gogoan nor dudana galdezka, herrimina ez ezik maitea gogoratu. Instintuari kasu ta aurrera. Horrela egin zaizkit Boudjourerainoko 200 km-ak berezi eta bereizi! Ematen dit eman jada, zartaginaren barruan nagoela, nitaz apoderatzen den zirrara bat gailentzen baita nigan. Euli-giro, bero-giro. Are gehiago nerabe bik atzamarrez erakutsi didatenean Dakfilarako bidea, erakuslearen ondotik erdiko atzamarra tentetu duten arte, garaipenaren ikurra eginez. Orduan bai ugaldu zaizkidala sabeleko tximeletak, Bertako Rand-rover-en gogortasunaren parekoa da Sahararren bihotza, pentsatu dut neurekiko.

Mouk jakinarazten saiatzen zen bezala; 'bizitza gogorra bada, gogorragoa naiz ni'. Zail egiten zait gainean daramadan askatasun sentipen uholde hau azaltzen. Hustasun hontan bakar bakarrik, dozenaka km aurretik eta, atzetik ia inor; erg-a, harriak eta dunak, Afrika beltza hegoalderantz, Magreba iparrean, sei mila km basamortu mendebaldera, eta Atlantiko harroa ekialdean. Beroagatik trabatuta geratu den cd-a irten da azkenean eta kanariar uharteetako emisoreak sartu dira uhinetan. Hain dago hurbil, hain da natura horrela, hain da naturala berai, Kanariar uharteak Afrika ez dela sinesgaitza egiten zaidala, gizakia hain bestelako dela ez baneki. Bitxia da bestalde, Ameriketako bageunde, Florida eta Kuba arteko latitudean ginatkeela pentsatzea, tropiko bete betean. Hemen hegoalderantz, basamortu luzea dago ordea.

Dakfilako bidegurutzean gelditu naute azkeneko, bizitzaren bidegurutzean agidanez. Luzaro nago bertan jendarme artean. Hiri honen penintsulak osatzen duen badia ederraz, zeinen gogaituta nagoen bestelakoez! Uniformatutako txantxa, karta, te, domino... horixe, 'domino'en eta abarren abarrez. Karta jokoa dirudi honek, Mooussa?!

Sahara osoa zeharkatuz hodeiertzerantz bezala noa, eta mugara orduko munduko azken uzkia dirudien 'Barbas' motelean hartu dut ostatu. Militarrek nola ez, kontrola dute hor aurrean gainera. Mugaldea badu zerbait berezia beti, ezkutuko, estraperloa eta mugazainen ustelkeria... eta horrelakorik izatekotan, Afrikan ere edo, batez ere Afrikan, bada. Ostatuari berari ere ustel usai dario. Zerbitzari bati salbu, bera suertatu baitzait jatorren. Gaztea eta nire antzeko frantsesa egiten duena. Aaiungoa dela esan dit ta nik, zeharku edo 'Sahararra?' atzamar bi gorantz altxatuz. Ez dut baina erantzunik jaso ta pittin bat uzkurtu naiz. Nola jaso baina, uniformedunak ez badira beti dagoenean zelatariren bat. alboko mahaian segurutik, Jaiki aurretik esan dit ahopeka, berriz gorantz buelta emango banu, egingo zuela Europarako saiakera, inoiz ez baita itsasora abenturatu aurrekariaren jakitun baino beldur.

'Igerian ez dakigula gutxienekoa da motel' esaldiaz jakinarazi zidan bere egonezina. Baxu baxu esan dit, ez dagoela bat ere gustura hemen. Ez hemen ez han, durunda kanpoan bezalako zela bere buruan dagoeneko.

Noiz helduko dira Tindufeko Sahararrak bertora?! Etxera?!

Mahai gaineko kuskus-a bukatu ta zera proposatu diot Mohamedi: 'nire helburu bakarra Mooussaren 'familia'rekin ematea da eta berak igorri mezua helaraztea. Mendebalderantz botako dut hemendik zuzen, Mali iparraldera, bere sorlekutik hur errazago delakoan bere jendearekin ematea. Elkar lagundu gaitzake hala uste baduzu. Gauerdian batuko zaitut motelaren atzealdean, bazaude primeran, bestela aurrera jarraituko dut kosta ala kosta, nire misioan'. 'Entzuteko moduko bolumenean 'salam alecum/alecum salam' batekin elkar agurtu arte.

Egiari zor, nondik nora bota ere ez dakit, Mooussaren berbaldietan burmuinean zizelkatutako koordenada batzuk baino ez aldean. Hamabiak helduta, Barbas-en atzean naiz agindu bezala...ni ta... urrutitik argi intermitente zuri batekin seinaleak egiten ari zaidan nire lagun berria nonbait. Hurbildu eta bai! Bingo! bagoaz auskalora!

Autoan... konfiantzan joateko, gustuko izango duelakoan, El Wali taldearen konpaktua jarri ta luze hitz egin dugu esan inguruetara kolpetik heldu bitartean; bera, ni eta... ilargi bete betea. Benetako touareg-ak bilatzea ez da lan erreza motel' bota dit horrelako baten. 'Orain daude han orain daude hemen, beraien gamelu, ahuntz, behi, arkume eta mandoekin, isiltasunaren erreinu infinituan dabiltza harat-honat'. ta frantsesez hitz batzuk partekatzeraz ausartu naiz bera bezain 'jaioa' ez naizen arren.

-Hain da isila ala desertua?

-Bakarrik bazaude, bihotzaren taupadak entzuteko adinakoa. Ez dago norbera aurkitzeko leku hoberik. Airearen usaindu, bista zorroztu, eguzkiagatik eta izarrengatik gidatu...ta galtzen bazara, gameluari kasu, hark eramango baitzaitu ura den lekura. Hain dena da simplea bezain sakona. Gauza gutxi dago, ta baikoitzak du izugarritzko balioa. Hurbilketan baikoitzak da estimatua... izan ere hain inork ez du auskalo zer izatera jolasten, baikoitzak badelako bera.

Ez dakit nik printze txikia nola sentituko zen baina ez zen nire zirrarengandik hain urruti ibilikor! Ta Mooussa dator behin da berriz gogora ta haren hitzak, haren ukituak, haren begirada...hobeto ulertzen dut orain berak adierazi kontrasteak Europara heltzean. Zenbateraino harritu zuen neska biluzien kartelak ikusteak edo muga bako jaridun iturriak! Errespetuaren eta xahutzearen ikuspuntu ezberdinak. Erdi negarrez ere harrapatu nuen noiz edo noiz grifo bati so.

'Nola ezagutu zineten elkar ba? Ta non? Zer dela ta? Ta zer da ba bere bizitzaz? Zer da zuen artean dagoena?' galderak luzatzen ditu erreskadan Mohamedek.

Uff...pentsatu nik ezpain keinue gordez. 'Gera gaitzen maparen 'X'ra heltzen gauden fontan bide-xidor eta idorreko pausalekuren batean. 'Gamelu' europar honi edaten eman eta aurrera jarrai dezan, gu ere indarberritu asmotan azken etaparen bila. 'Atak! 'Vakha!' irten zaio lagunari jarraian, mesedez-ados esan aldera. Beraz, biontzako tajim eta kefta bat eskatu ditugu, riad batetik gertuko

Kafetin moduko batean, ta hitz egiten jarraitu otordu goiztiarrean, lehen argi printzen laguntzaz. Ta hasi natzaio kontatzen nola hasi zen dena Montpellierko fakultatean ikasturteko lehen egunean: 'Gerora ez zen gaitzki ulertu batekin hasi zen dena, gelatik irtetearen eskutik heldu ninduenean kalera bidean. Nik ez nekien musulmanek ofitura dutela berori ta nik...nik, zer pentsatuko nuen ba?'

Are gehiago ni homosexuala naizela jakin arazi diodanean Mohamed-i, kontu handiz, jakin bai baitakit terroristak lez daudela penatuak bertan. Ez du aurpegiera txarra jarri!

'Berak, Mouk, beranduago aitortu zidan hori, ondo ezagutu eta elkar hartu genuenean, lehen hiruhilekoaren burura. Hiesa zuela aitortu zidan astelehen berean. '

Kontatu nion Dakarreko printze txikia'ren patua, baita txikitzen eskolara joateko egiten zituen 15km-en abenturak. Bere aita kontentzitu zuela eskolara joan zedin astean zehar. Nola lagundu zuten gertu lo egiten uzten zuen maistrak zein egunero jaten ematen zion emakume zoragarri hark...Gurearen detaile gehiagotan sartu barik, gaixo jarri zela esan eta Parisko ospitale batean zendu zela esan diot, niri eskutik helduta gutun hau eman ta egun erdira.

'Berak, egia zor, jasan gaitzaren iturburua, 90.hamarkada hasieran sufritu zuten sikatearen eragina zenaren susmoa izan du beti. Berak 12 urte zituelarik animaliekien bat, bere ama bera ere ondorengatik eraman ziona. Justu eskolaratu aurretik.'

Jarraitu dut dakidana argitu asmoz, berak erlaziorik izan ez zuela esanez, ez bait zuen ez haurtzaroan ez nerabezaroan sexu harremanik izan, eta ordutik izandakoak nirekin baino ez zituela izan aitortu zidan. Ta zin degizut, antisorgailupean egin genituela egin nahi genituenak! Neu naiz horren adibide Mohamed, ni; garbi nagoen ni. Geroztik, aita noizbait berriz ikusiko ote zuen zen bere ardura, eta hala balitz, nola kontatuko zion gurea eta abar horiek guztiak. Ta hori da ba, pintzelada batzutan gurea'

'Chukrane Haser -Asier esan aldera- chukrane', eskerrik asko batekin bukatu dugu tearen irakin soinu eta bihotzaren taupaden taup-taup koordenatuen erritmora.

-Abentura gaitzen bere sorterritik gertuko desertuko hareetan, eginahalak gauzatzeko arrastoen bila; posta-kutxa ibiltariaren atzetik,

Kafetinekoak 'bslama' -ikusitako arte- batekin agurtu, 'inch allah' -jainkoak nahi badu- bat jaso eta barrenetik barrenera. Ibilaren ibiliaz desertuaren desanparoen, urrunera, qarabana hura begiztatu dugun arte.

-Hor dira Haser hor dira 'gureak'.

Horrela ezagutzen dira Tuaregak, beraien aiora munduaren sabaia, duen koloreagatik. Dena dago esanda adiera berorregaz baina, izango da ere, indigo landarea eta pigmentu naturalekin tindatutako durbante urdinen tindua galtzearen eraginagatik, aurpegiak ere hartzen baitie urdinak, kolorea kotoi finezko tela zoragarri horrekin bisaia estaltzen dutenean.

Aukera bakardun aukera sortzaileak dira, etorri zait irudimenera gure munduarekin alderatu aldera edo. Gurean bekatu buruak dira nagusi, eta ez zazpiak esan ohi duten moduan, 7X? baizik. Ta dena izan ta ia denaz kezu. Hemen argi da inork ez duela aurreratu nahi, ta eguneroa ere egunero dela ezberdin, zerutik lurrerainoko guzti guztia: animalia bakoitza, izar bakoitza, are garau bakoitza, egunsenti zein ilunabar bakoitza...momentu magiko da berau, zoriontasun intentsua. Lekuan lekuko hizkera dutenez, hemen tarifit han cherja, zein hangoa hemengoekin ta hemengoa han, en fin, ez dakidala zer moduz moldatuko den Moha kanpamendura hurbiltzerakoan. Konfiantza daukat baina, beraien ibilian ibili duenaren igarle. Beraien munduen mundutxoak aski ezagunak izango dituzte harri ibiltariok!

Hurbildu ahala guztiz harritu nauen ile-hori/begi-urdin mutiko bat urreratu zaigu, bere hamabietan -gogoratu dut- hau ere 'sbah el khef' -egunon- batekin ta Moha azaldu dit nola, besteak beste noski, 1920an egon zen gerratearen ondorio direla 'orbain' horiek batzuegan. Imajina dezakezue zergatia. Aingeruak biok eskutik hartu ta talderatu gaitu txiri txiri. Ai ama, zer ez da nire burutik pasatzen?! Dena suposizio baina dena egi!

Gaur ostirala da, jai eguna, ta jan dugun arren, bapo jan, jatera gonbidatzen gaituzte.

-Salam alecum...

-Alecum salam...

Eta Moha da beraiekin berbaldean luze ari dena, nik on aurpegia jarri, besterik ez zait irteten; errespetu osoa adierazi. Goserik ez baina gizalegez zerbait ber jan ta hori bai, 'jandula' -on egin- batekin harritu ditut gustura anfitrioiak. Mou ta biok batzuetan nirera ta batzuetan berera egiten baikenuen, ta besteak beste eskerrik askoak ta gabon -lila sáida- bezalakoak ematen elkarri.

Gutxi batzuk dira dakizkidan hitzak edo esamoldeak, eta hizkera nahasian baina, gustatzen zait ahal den denetan, dakizkidanak aieratzea, hurbilketa ariketa gisa edo. Etxean jasotako errespetuzko hezkuntza apika!

Hala ere horretarako baino ez, ez baitu zuzeneko mintzairarako bide ematen. Eskerrak 'Moha' dudana niaz, ta berari delegatu dizkio lan guztiak ezinbestean.

Uneka errezoren batzuk egiteko gelditu garen arren, iluntzerainokoa izan da Moha Sahararra eta tuareg ibiltarien arteko berbaroa. Nire kontuak nola dauden ez dakidan arren gustukoa izan da nonbait hartu emana, batera irten baikara jaimatik ilunabarra ikustera inon inoiz ez bezala.

Baita beraiekin lotan geratu ere, bihar gertu nonbait, zerbait ikustera eraman nahi nautelako. Eta hala hartu gaitu loak, ilargipeko otsoen gisan, bizitza bien bitarte bat den honetan.

Gaur amets egin dut... olerki baten izenburua ematen du ta hala izan zitekeen ez baititut alperrik ikusi buelta, orain kalak, geranioak, bioletak eta daliak... ondoren nartzisoak, orkideak, petunia eta magnolia... eta azkenik ziklamenak, mitxoleta, krisantemoak ta bitxiloreak baina, subkontzientearen jokaldi bat baino ez da izan, komunikazioaren koptelaren eragina edo. Elkar ulertu nahi izatea eta kolorea eta irudien bitartez hitz egin ezinaren betoari aurre egiten zieten emakume haien kuraia eta... hori guzti hori... eta Mou. Banekien nik amets egiteko, ohe beharrik ez zegoela eta argi dakusat hori hemen, denborak erlojurik behar ez duen honetan. Ez ezagutzak libururik, ez osasunak medikurik, ez errespetuak preziorik. Gauzak datozen bezala hartu edo eraikitzen dira. Haizearekin dantza egiten ikasten da! Akaso, ametsetan hori egin dut, ametsaz beste ko errealitatean, hain zaila den haizearekin dantza egin.

Arrazoi izango ote zuen horretan ere Mooussak, pentsatzen dugulako baino pentsatzen gaituztelako bizi garelako zioenean?!

Larunbata da ta hego-haize batek iratzarri nau lo-zorrotik. Egun bereziek daukaten distira horrek bere gorrixkekin.

Forma ezberdina hartzen doazen laino horiek pasadan, zeru mortu hontan. Gaur da 'zera' hori erakutsi behar didatena. Bart arratseko hitz aspertuaren ostean, dagoeneko ezer esan ez badidate eta nire egonaldia atsegina izateaz arduratu badira, ematen dit ba eman, gustuko edo beraien aburuz espero ez dudana zerbait badatorrela. Notizia onak ez dute maiz itxaroten?!

Esan eta izan, pentsa eta eman! Goizeko tearen lurrinekin bat hasi dira niri ulertarazten Mooussaren sendikorik ez dagoela jada beraiekin, beraiegan baino. Nik esan diet Moharen bitartez noski, badakidala amarena, baita anai-arrebarik ez zuela -oso arraroa den arren, esan baino pentsatu-, eta aita ez balitz ere, espero nuela ahaideren bat bizirik aurkitzea; 'bere baten bat'. Baina nola adierazi bereren bat?! Ez dago adierazi beharrik, eskerrak garaziz oihartu naizen, begiak irekitzearekin nahikoa da.

Beraiek 'aita' entzutean, egoki ikusi dute abagunea, nahi banu eramango nautela aitaren batean bere 'hilobia' ikustera.
Baietz erantzun diet noski, plazer bat izango zela eta eskertua nagoela guztiz.

Espero nuena edo aurkitu dut bertan, -ez behintzat megarantz begirako lauza zatizko hilobi ohiko, burutik kenduta nuen arren aldarre honetan- harri multzo txiki bat denen artean MAA (Madu Ag Assarid) irudikatzen dutela. Simplea.

Oroigarria, akaso gorpua bera lur-azpi berean dagoen arren. Enoa galdetzer; alperrik da.

Niri otu zait, familia bat akaso hori dela, hondar ale bakar batzuk batera. Familia irudikatu dut ba istant berean eskuan hareta garautxoak bueltara ditudala. Garbigailuan arropak lez, eskumuturra itxi, jira-bira batzuk nahas-mahasean eta aireratu ditut aleok golpean, inkontzienteki edo ez!

Momentuko kanpamendura bidean ausartu naiz, asko galdetzea ez bada, Mooussaren aita zertaz hil zen galdetzer, eta arazo bari erantzun didate gaixotasumen baten eraginez izan zela zorigaiztoa. Ahul jartzen zela noiznahi eta gogor jo ziola gaitzen batek eta hortan geratu zela gizagaioa. Erreserbatua baina jator asko zela Madu.

Neurekiko egin nituen loturak eta hiesaz hilko zela pentsatu. Pentsatu eta sinetsi. Hiesaz edo dena dela gogoz, izan ere, hauek hiesa zer den ez dakiten neurri berean nago neu sinetsita, hiesa berez, ez dela gaioa; minbizi sendaezin bat. Hiesa, eraman errekurto gutxi bizitzagatik edo kasu honetan izurrite handi harengatik eratorria litzatekeen, defentsa gabetze definitibo bat baino ez dela. Edozerk azken puntua jarri diezaiokkeen koma bat! Sendagarria, delakoaren benetako informaziorik balego eta, eman irtenbide ez deusetan baino bizi baldintzak hobetzen egingo bagenitu ahalegina,

Burua sutan jartzen dit honek guztiak; negozio farmazeutikoei eta giza etika beltzek, Lotsagarriak dira politika-genozida hauek eman modu guztietan!

Horrela joan da asteburua bere osoan, larunbat gaueko oroi kantua alaiak gogoan eta familia bat bertan utziko dudan ustean. Moharekin hitz egiteko probestu ditut une melankolikoko. Ta ez dakit ba niri baino gehiago eragin ez ote dion ba

Mohari berari honek?! Izan ere, nire planak kontatu dizkiodanean, nireak jada egin duela hemen, eta berekiko hitzarengatik ez balitz Europara bueltatu ordez Merzougarako asmoa nuela ta hau ta beste...berak 'safi, safi' -nahiko, nahiko- batekin moztu ta lasai asko egoteko esan dit eskua sorbaldara botata. Bera bertan geratzeko ideari bueltara zebilela, egia egi. Jende jatorrekin zegoela eta azken finean, Sahara, Sahara izan arte, borrokatzetik gertu eta arriskutik urruti ikusten duela bere burua bertan momentuz. Ta nik, aurrez lehen berak egin antzera baten, besarkada estu batez eman diot nire oniritzi eta laguntza umil osoa. Beste ezere beharrik gabe. Halakoetan egia esan, hitz erdiak osoak baino eraginkorragoak dira.

Uste dut berak bada jela, gauetz, gauerdikora artekoaren ostean, ohantzera orduko, egunez eraikutsi 'mausoleora' joan naizela ta enkargua bete. Mooussak igorri gutuna heldu dela helmugara halan edo holan.

Noski banuela hian jarriko ote zuenaren irrika. Ezinezona ere esango nuke, behin dena aitortuz. Ez dut gutxitan pentsatu nitaz ere -oraingoa bai- zer nolako hitzak jarriko ote zituen. Zelakoak ziren hitzok! Alperrik da baina! Inongo eskubiderik ez izateaz at, oraindik orain, distantzia hitz bat baino ez da Mou ta nire artean. Maitu dut!

'Maite ditut maite...'

Eta maitasun osoz, gutun-azaleko musu ta guzti, hian geratu da gutuna lur-hareatik esku pare bat behera. Inork ez aurkitzeko beste eta agian noizbait aireratzeko moduan!

Mohak ere bideak markatu ditu bart gauean antza, beraz, denak agurtu, eskertu, bultzatu eta burua eskaini ostean, deserritik deserrirako bideari ekin diot.

Hautatutako deserrira. Nire zioak ere kidearenaren antzeko baitira. Zer dela ta EHra itzuli?! Hainbeste borroka buruan -ta zerbitzari bat lekuko- nire Euskal Herria ez denean ez euskal ez herri?! Irla batzuk salbu euskarak sorlekurik apenas duenean?! Herririk ez dugulako aberri hitza asmatu behar izan dugunean?! Gutxi gutxienean zena ere ez denean egun; ulertuak ulertu.

Ez dut jada neure burua -pena eta errespetu handiz- geuk historian naturalki irudikatura inola iritsiko ez den, herri ez dakit noren baten ikusten.

Zaurituta nago herria lez, ta neu naiz oraingoa, borroka -Mohak dion bezala momentuz, baina momentua E.Han lepo luzeak izango denaren ustean- bere hortan ustean duena. Pentsatu moduan bizi ezin banaiz, bizi garen moduan pentsatzen ez dut bukatuko!

Mooussak bazuen nire borroka berri, ta bat egin edo ez, errespetatzen zuen. Berarekin bat lurperatuta gera daitezela ba nire konfesa ezin! Nik bereak ere sekretuan mantentzen ditudan moduan. Berak ere, oso bestelakoak izan arren, bazituela bai bere fronteak bizitzan. Batzuk, esan beharrik ez dago, nirearen parekoak, ta beste batzuk, ba ez. Txakurrak oinutsiak edonon! Ta behin berak aipatu hitz batzuei kasu egitea erabaki dut ez idatzizko patu batean lez. Berak behin baino gehiagotan aipatu leku hortara 'jubilatuko' naiz.

Lubakjetan izana naiz, ta ez gutxitan ez denbora laburrez, ta behingoagatik eta halabeharrez bada ere, bakarka, neure burua zaintzearen erabakia hartu dut. Barne lubakjetatik askatzeko ezinbesteko zait.

Ta horrela bukatu dut Merzougan. Mooussak esaten zidan bezala -esaterik badago- hiltzeko ere leku ezin aproposagoan.

*Eta berandu baino lehen, eta, neure eskuz,
gutun azal bat ezkutatu dut dunaren punta puntan bihotz bat behera:*

Hemen denean sinesterik dago.

Eskuak izarrekin bete ditzakezunetan, erlojuak jadanik ez baina, denbora oraindik harezkoa denean, hori egiterik badago.

Bada bihotza ondo zauritzerik:

Arabi sagar gazi-gozo eta mendafin hostailez.

Usai eta kolorez.

Maitagarrien ipuin eta whiskey idortsuez

Suge dantzari, ezkutuko keinuzko alakran, trimino jostari eta beraien isatsari kosk egiten dioten bestelako merlenkez.

Harea kamaleonikoez.

Pinpilinpaura silbestrez.

Tuaregen begirada bilduez.

Seaska amets asaldatuez.

Ia dena ta ia ezertaz:

Ez zeru ez meka, baizik nirvana eta olimpoez.

Barne ur-jausiez.

Odeiak ttu eginiko apoez, adibidez.